


EMAKUMEEI BURUZKO
MUNDU MAILAKO IV.
KONFERENTZIAREN 25.
URTEURRENA, BEIJING, 1995

BEIJING-ETIK GAUR EGUNERA, AURRERA PAUSOAK BERDINTASUNEAN EUSKADIN


HERRI ITUNA BERDINTASUNAREN ETA EMAKUMEEN
AURKAKO INDARKERIAK GABEKO BIZITZEN ALDE



*Euskadi,
auzolana*



EMAKUMEEI BURUZKO MUNDU
MAILAKO IV. KONFERENTZIAREN
25. URTEURRENA, BEIJING, 1995



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

*Euskadi,
auzolana*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Izenburua: HERRI ITUNA BERDINTASUNAREN ETA EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARIK GABEKO BIZITZEN ALDE

Edizioa: Emakunde- Emakumearen Euskal Erakunde

Honek eginda: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde

Data: 2022ko ekaina

AURKIBIDEA



01. or.

SARRERA

03. or.

OSASUNA

05. or.

HEZKUNTZA

07. or.

ORDAINDU
GABEKO LAN
DENBORA

09. or.

ENPLEGUA

11. or.

PARTE-HARTZE
SOZIOPOLITIKOA

13. or.

EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIA
MATXISTA

15. or.

POBREZIA ETA
GIZARTE
BAZTERKERIA

17. or.

BEGIRATU
BATEAN



SARRERA



Emakumeari buruzko Munduko IV. Konferentzia 1995ean egin zen Beijingen (Txina). Bertan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko munduko hitzarmen politiko berria onartu zen, eta inflexio-puntua izan zen maila guztietan berdintasun-politikak garatzeko.

Konferentzia horren harira, Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma onartu ziren, eta gobernu guztiek munduko emakumeen eskubideak garatzeko eta finkatzeko konpromisoa hartu zuten helburuak eta neurriak jasotzen zituen programa horretan. IV. Konferentzian, emakumeen eta nesken ahalduntzearekin batera, **genero-ikuspegia txertatzea** izan zen emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko mundu-estrategia. Estrategia horren bitartez, emakumeen esperientziak, beharrak eta interesak, baita gizonenak ere, arlo politiko, ekonomiko eta sozialeko programa politiko guztien diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan txertatzen dira dimentsio integral gisa, emakumeek eta gizonek onura berdinak izan ditzaten eta desberdintasunik egon ez dadin.

Hala, Adierazpena eta Plataforma herrialde guztietan berdintasun-politikak garatzeko eta egindako aurrerapausoen inguruko kontuak emateko funtsezko nazioarteko tresnak bihurtu ziren, eta hala izaten jarraitzen dute.

Ordutik igaro diren 25 urte baino gehiagotan, aurrerapen garrantzitsuak egon dira emakumeen eta nesken bizitzako hainbat alderditan. Hala ere, 1995ean identifikatu ziren erronka asko esanguratsuak dira oraindik ere, hala nola soldata-arrakala, soldatapekoa ez den lanaren banaketa desberdina eta indarkeria matxista, besteak beste.

Nazio Batuen arabera, 2021ean, munduko herrialde batek ere ez zuen lortu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ezta emakumeen eta nesken ahalduntzea ere. Horregatik, 2021ean zehar, NBE EMAKUMEEN Generation Equality kanpainaren esparruan, datozen 5 urtetan emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako aurrerapausoak emateko arreta premiazkoagoa behar duten lehentasunezko sei ekintza-arlotan zehaztu ziren ekintza zehatzak.




Hauek dira arloak: indarkeria matxista, gorputzaren gainerako autonomia, osasuna eta eskubide sexualak eta erreproduktiboak, justizia eta eskubide ekonomikoak, justizia klimatikoa, teknologia eta berrikuntza, mugimenduak eta lidergo feministak.

Gida honen helburua da IV. Konferentziatik berdintasunaren arloan euskal gizartean izan diren aurrerapausorik esanguratsuenak ezagutaraztea, eta informazio-iturri askotatik lortu diren datuen artean esanguratsuak diren datu kuantitatiboen bitartez erronka nagusiak identifikatzea.

Gida honetako edukiak aukeratzeko eta egituratzeko, kontuan izan ditugu berdintasun erreala lortzeko Ekintza Plataforma horretan ezinbestekoak izan ziren arloak, bai eta EIGEk (Genero Berdintasunerako Europako Institutua) diseinatutako.

Genero Berdintasunerako Indizea (aurrerantzean, GBI) osatzen duten dimentsioak ere. Indize horri esker, Europak duen berdintasun-egoeraren inguruko ikuspegia izan dezakegu, eta herrialde kideen artean alderaketak egin eta bilakaera aztertu dezakegu. Euskadin aldizka kalkulatzen da indizea. Hala, berdintasun-politiken eragina neurtu eta hobekuntzak behar dituzten indizeko arloak nabarmendu ditzakegu: enplegua, dirua, ezagutza, denbora, boterea eta osasuna.




Osasuna eraikuntza historikoa, soziala, kulturala eta subjektiboa da, faktore anitzak eta konplexuak ditu, aldatuz joan da denboran zehar, eta, aldi berean, desberdina da testuinguruaren arabera.

Egun, sexua eta generoa osasunean eragiten duten aldagai gisa daude aitortuta, eta eragin handia dute emakumeen eta gizonen artean dauden osasun-arrakaletan. Alabaina, urte askotan zehar, osasun-arretak ez du tratamendu egokirik izan genero-ikuspegitik, eta alde batera utzi du emakumeok eta gizonok desberdin gaixotu eta hiltzen garela: desberdin, desberdintasun biologikoak daudelako, eta, desberdin, gizarte-egituran duten lekuak pertsonen osasunean desberdintasun sozialak sortzen dituzten rolak, ohiturak, portaerak eta aukerak baldintzatzen dituelako. Gaixotasunak aztertzerakoan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan ez hartzeak eragin du emakumeen gaixotasun batzuk behar bezala ez diagnostikatzea, sintomak nahastea edo gaizki prebenitu eta arintzea.

Azken urteotan, genero-ikuspegia tokia hartzen joan da pixkanaka osasun-arloan. Apurka-apurka gero eta ikerketa gehiago egiten ari dira sexuaren arabera bereizitako datuekin, profesionalen taldeak kontzientzia hartzen ari dira pertsonak bere gorputzaren eta minen inguruan egiten duen kontakizunean arreta jartzeak duen garrantziaz, eta azterketetan, osasun subjektiboaren ikuspegia txertatuz doa.

Emakumeek haien osasunaren inguruan duten pertzepzioa duela urte batzuk baino hobea da, eta bizi itxaropena igo egin da arian-arian.

Hala ere, urte gehiago bizitzeak ez du esan nahi urte horietan osasun-egoera ona izango denik.



Gaixotasun kronikoak ugaritu egin dira azken urteotan emakumeen artean, batez ere adinekoen artean, eta buru-osasuneko gaixotasunek, antsietaren eta depresioaren sintomak kasu honetan, presentzia handiagoa dute emakumeen artean gizonen artean baino. Bestalde, gizonek neurrigabe pairatzen dituzten osasun-arazo batzuk (suizidioa, mendekotasunak, GIB/HIESA...) ere jorratu behar dira. Arazo horiek ere landu behar dira, eta maskulinitate sexistaren eredu batetik eratortzen dira, urrakortasunean, zaintzarekiko eta autozaintetarekiko axolagabekeria edo jokabide arriskutsuak beren gain hartzean oinarrituta, gizontasunaren erakusgarri gisa.

Hala eta guztiz ere, emakumeei kalte handiagoak eragiten dizkien desberdintasun-egoera dago osasun-arloan, eta, horregatik, beharrezkoa da emakume guztien tratamendu eta aukera-berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko baldintzak sustatuko dituzten lan-ildoak garatzea, kolektiboen eta egoeren dibertsitatea kontuan hartuta.

EAEn, osasunaren arloa da genero-berdintasunaren indizearen arlo guztietatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera gehien hurbiltzen den tasa duena. Dimentsio honetan soilik da desberdintasun arina emakumeen egoera hobearen ondorioa.




ES	2019	EU
90,3		87,8

2010	2015	2019
91,3	90,9	92,4


Euskadiko emakumeen

bizi itxaropena

86,3 urtetan dago egun (gizonena 80,7 urtetan), beraz, duela 25 urte baino lau urte handiagoa da.¹



Emakumeen **osasunarekin lotuta dagoen bizi itxaropena indizea** ere bi puntu baino gehiago **igo** da azken bost urteotan.²



Emakumeen

%82,1en esanetan, bere **osasuna ona edo oso ona da**, eta ehunekoa etenik gabe igo da 2022tik.²

2002

ONA EDO
OSO ONA

% 59,9

2018

ONA EDO
OSO ONA

% 82,1

Gaixotasun kronikoren bat duten emakumeen ehunekoa ia 11 puntu **igo** da 2007tik.²


% 46,3
2018

% 35,4
2007

Antsietatearen edo depresioaren sintomak dituzten emakumeen ehunekoa (% 16,4) gizonena baino (% 9,3) altuagoa da.²

2007 eta 2018 artean hobera egin zuen arren (tasa lau puntu inguru jaitsi zen), **Covid-19ak** eragindako pandemiaren ondorioz, baliteke buru-osasuneko arazoak **ugaritu izana**.

% 20 **% 16,4**



Atalaren iturriak:

1. **EUSTAT**. Oinarrizko adierazle demografikoak.


2. **EUSTAT**. Euskadiko Osasun Inkesta.

Hezkuntza giza eskubidea izateaz gain, pertsonen eta gizartearen garapen ekonomiko eta sozialerako ezinbesteko faktorea da. Hezkuntzarako erabateko sarbidea izatea eta berdintasun-baldintzetan gauzatu eta gozatu ahal izatea funtsezko baldintza da emakumeen ahalduntzerako eta oinarrizko tresna emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburuak eta garapen soziala lortzeko.

Helburu horrekin lortu da azken hamarkadotan emakume eta neska guztiak hezkuntza-sisteman sartzea, eta nazioarteko, Europako, estatuko eta EAEko legeak aitortu eta bermatzen du hori.

Egun, gehiago dira emakumeak batxilergoko eta unibertsitateko ikasketetan, baina nabarmen gutxiago lanbide heziketan. Emakumeak maila guztietan daudenez eta hezkuntza-arloan berdintasun juridikoa dagonez, uste orokorra da arlo honetan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna lortu dela. Halaber, neskek errendimendu akademiko handiagoa dute eta eskola-uzte tasa baxuagoa, eta, oraindik gutxiago badira ere, tradizionalki “maskulinotzat” hartu diren espezialitate zientifiko-teknikoetan presentzia handiagoa dute. Horrek guztiak indartu egin du aukera-berdintasunaren ideia.

Alabaina, lorpenak egin diren arren, desberdintasunak badira oraindik ere eta kontuan hartu behar dira. Alde horretatik, ez da lortu sexuagatiko diskriminazioarekin amaitzeko, nesken ahalduntzea sustatzeko, eta berdintasuna lortzeko eragile gisa gizonak kontzientziazteko eta inplikatzeko lan integrala egingo duen hezkidetza-eredua orokortzea.




Gainera, oraindik ere badira “maskulinoa” erreferentzia unibertsaltzat hartzen duten antolaketa eta ikasketa-ereduak, balioak, hizkera, erreferenteak, kultura eta egitura diskriminatzaileak eta adin goiztiarretatik emakumeak eta gizonak desberdin sozializatzen dituztenak.

Bestalde, irakasleek parte-hartze maila desberdina dute hezkuntza mailaren eta kategoria profesionalen arabera, baita ezagutza-arloaren arabera ere.


Horrek guztiak etorkizuneko lan-ildo argia zehazten du hezkuntzako agintarientzat, berdintasunaren arloan indarrean dauden legeen aginduak betez benetako hezkidetzan oinarritzen den hezkuntza-eredua sustatzeko.

EAEko ezagutzaren arloko Genero Berdintasuneko Indizea ehuneko lau puntu baino gehiago hobetu da azken urteetan; 2010ean, 61,2koa zen eta 2019an, 65,6koa.


	2010	2015	2019
EZAGUTZA	61,2	63,9	65,6



Emakumeak egun **gehiengoa** dira **Batxilegoko**¹ eta **Unibertsitateko**³ ikasleen artean.



Emakumeek **oso presentzia gutxi dute Lanbide Heziketan**; beraz, horrek erakusten du bereizketa dagoela prestakuntza-ibilbideak aukeratzekoan.¹




Emakume irakasleen **presentzia unibertsitateetan** ugartu da batez ere; 11 puntu igo da azken 15 urteetan.



Datuen iturria:
 1. **EUSTAT**. Eskola Jardueraren Estatistika.
 2. **EUSTAT**. Egiturazko adierazleak.
 3. **EUSTAT**. Unibertsitateko Estatistika.
 4. **UPV-EHU**. Kopuru-berdintasuna.


HEZKUNTZA

Emakumeen **eskola-uzte goiztiarreko**ta jaitsi egin da pixkanaka eta egun % 8an dago. Kopurua duela 25 urte baino ehuneko lau puntu baxuagoa da, eta gizonena baino bi puntu baxuagoa (% 9,6).²




Arrakala hori ere ageri da unibertsitateko ikasketak aukeratzekoan.

Azken hamar urteetan **emakumeek ikasketa zientifiko-teknikoetan duten presentzia** 10 puntu handitu den arren, **egun**, EAEko unibertsitateetan **Zientzietako, Ingeniaritzako eta Arkitekturako** ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleen **% 34,8 soilik** da emakumezkoa,³ aldiz, osasunaren zientzien arloan matrikulatuta dauden gizonak % 22,4 dira.



Emakumeen presentzia **txikia** da **Ikertzaile Nagusien** artean (% 39,5) eta **tesiak zuzentzen** dituztenen artean (% 27,6). Aldiz, irakasle laguntzaileen gehiengoa dira (% 72,7).⁴



ORDAINDU GABEKO LAN DENBORA


Azken hamarkadetan aldaketak eta aurrerapausoak izan diren arren, etxeko lanen eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzaren ardura emakumeek izaten jarraitzen dute, eta arlo pribatuko desberdintasun hori da gizarte berdin baterako aurrerapausoak emateko oztoporik handienetako bat.

Euskadiko emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute etxeko lanak egiten eta haurrak edo mendeko beste pertsona batzuk zaintzen, eta lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak izaten dituzte. Gainkarga horrek, osasunean eta bizi-kalitatean kalteak eragiteaz gain, eragina izan dezake beste jarduera batzuk egiteko duten denbora librean ere, esaterako, aisialdirako edo kirola egiteko. Zeregin horiek egiteko duten lan-kargak nabarmen baldintzatzen du emakumeen garapen profesionala eta laneko ibilbidea, eta ondorioz, baita uneko eta etorkizuneko diru-sarrerak ere. Emakumeek lan merkatura sartzeko edo ez sartzeko dituzten aukerak, egonkortasuna edo aldizkakotasuna, eta lanaldi osoa edo partziala izatea zaintza-beharrek baldintzatzen dituzte hein handi batean.


Covid-19aren pandemiatik eratorritako azken krisian, agerian geratu da zaintza-lanak ezinbestekoak direla gizartearen funtzionamendurako, eta mahai-gainean jarri da gai hau kontu pribatua beharrean arazo sozial gisa jorratzeko beharra, eta erakundeen, enpresen, komunitatearen eta gizonen parte-hartzea izango duten konponbide orokorrak bilatzeko beharra.

Hala eta guztiz ere, badirudi argi dagoela zaintza eta etxeko lanetarako erantzunkidetasun sozialarekin batera, emakumeak lan-merkaturan sartzea erronka garrantzitsua dela oraindik ere, eta beharrezkoa dela horri aurre egitea emakume eta gizonentzako gizarte parekidea eta bidezkoa lortzeko.

EAEko Genero Berdintasuneko Indizearen denboraren arloak aurrera egin du apur bat azken urteetan; 2010ean, 73,4 puntukoa zen eta 2019an, 74,1 puntukoa.




	2010	2015	2019
IRAUPENA	73,4	70,7	74,1



ORDAINDU GABEKO LAN DENBORA

Emakumeek haien gain hartzen dituzte etxe barruko lanen bi heren.

Erantzunkidetasuna oraindik ere erronka den arren, gizonen parte-hartzea ehuneko zazpi puntu handitu da azken 20 urteetan.⁵




% 77

Lana eta bizitza pertsonala uztartzeko zailtasunek reragina dute, eta, ondorioz, kontziliazioagatik lan-jarduera eten duten

eta adin aktiboan (16-69 urte) dauden pertsonen ia % 77 emakumeak dira.³

Emakumeak dira kontziliazio-neurri gehien hartzen dituztenak, baina gero eta gizon gehiagok eskatzen dituzte.

2020an haurrak zaintzeko eszedentzia eskatu duten gizonen ehunekoa 2005ekoa baino zazpi aldiz handiagoa da.




Emakumeek eta gizonak etxeko lanak egiten ematen duten denboraren aldea murriztu egin da azken 25 urteetan, baina emakumeek gizonak baino **ordu 1 eta 11 minutu gehiago ematen dituzte batez beste horretan.**²

Desberdintasuna ere ageri da lanean ari diren herritarren artean, eta hortik sortzen da emakumeen "lanaldi bikoitza" deritzona.⁴


ETXEKO LANETAN EMANDAKO BATAZ BESTEKO DENBORA

4 ordu
34 min



EMAKUMENAK

3 ordu
06 min



1 ordu
45 min



GIZONAK

1 ordu
55 min



1993

2018

Emakumeek **aisialdi aktiboari eta kirolari** eskaintzen dioten denbora ia 20 minutu areagotu da azken 20 urtetan. Tarte laburtu den arren, **gizonak denbora gehiago ematen dute jarduera horietan:** 2 ordu eta 43 minutu, emakumeek aldiz 2 ordu eta 13 minutu.²


KIROLEAN EMANDAKO BATAZ BESTEKO DENBORA

1 ordu
54 min



EMAKUMEAK

2 ordu
13 min



2 ordu
34 min



GIZONAK

2 ordu
43 min



1993

2018

Datuen iturria:

1. LAN ETA GIZARTE GAIETAKO MINISTERIOA. Ministerioaren Estatistiken Urtekaria.

2. EUSTAT. Denbora Aurrekontuen Inkesta.


3. EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. Euskal Familia eta Etxeen Inkesta (EFE).

4. EUSTAT: Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta.

5. EUSTAT: Etxeko lanari buruzko kontu satelitea.

Azken hamarkadotan, emakumeak lan-merkatura sartuz joan dira pixkanaka. Izan diren lorpenak gorabehera, ez dira modu parekidean sartu. Aldi baterakotasuna eta partzialtasuna; soldata-arrakala; hautaketan, sustapenean, ordain-sarian edo kontratazioan jasaten duten diskriminazioa; lana eta familia uztartzeko bizitzako hainbat fasetan dauden oztopoak; ekintzailetzarako zailtasun gehigarriak; sektore ekonomikoaren arabera emakumeek eta gizonak duten presentzia desberdina (bereizketa horizontala); eta erantzukizun handiagoko postuetan duten parte-hartze desberdina (bereizketa bertikala) dira, besteak beste, emakumeen soldatapeko lanaren ezaugarriak oraindik ere. Gainera, desberdintasun horiek guztiak areagotu egiten dira adinak, desgaitasunak edo jatorriak eragindako diskriminazioarekin bat egiten dutenean.

Horri Covid-19aren pandemiak enpleguaren arloan izan duen eragin negatiboa gehitu behar zaio, emakumeen genero-arrakalak eta desberdintasunak areagotu baititu.



Covid-19ak eragin handiagoa izan du emakumeengan, izan ere, haiek egin dituzte birusari aurre egiteko lehen lerroko lan gehienak, esaterako, osasun langileek (bereziki erizainek eta erizaintzako eta geriatriako laguntzaileek), garbitzaileek, barneko zaintzaileek, saltzaileek eta elikagai dendetako eta supermerkatuetako kutxazainek edo gizarte-zerbitzuetako profesionalek. Era berean, emakumeak izan dira lana galtzeko zaurgarrienak.

Egoera hori zuzentzeko eta berdintasunerako aurrerapausoak emateko funtsezkoa da berdintasun-arloan indarrean dauden legeen aginduak betetzea, enpleguan aukera eta tratu-berdintasun errealerako eta eraginkorrerako baldintzak sustatuz, askotariko kolektiboak eta egoerak kontuan hartuz, eta askotariko diskriminazio-egoerarik eman ez dadin bermatuz.

EAEko Genero Berdintasuneko Indizearen enpleguaren arloak hobera egin du; 2010ean, 70,6 puntukoa zen eta 2019an, 74,6 puntukoa.


	2010	2015	2019	ES 2019	EU
ENPLEGUA 	70,6	72,2	74,6	73,7	71,6



Gizonen jardueraren tasa (% 60,9) oraindik handiagoa den arren, gero eta emakume gehiago sartzen dira lan-mundura.

Jarduera-tasa

ehun puntu **igo** da azken 26 urteetan¹.



Lanaldi partziala ia emakumeek soilik egiten duten modalitatea da. **Lanaldi partzialeko**

lau kontratatutik hiru

emakumeek

dituzte (% 76,6)².




Azken urteotan emakumeen aldi baterakotasuna murriztu egin den arren, indizeak altuak dira oraindik ere. Egun, **ia**

hamar emakumetik hiruk du

aldi baterako kontratua,

(% 28,9), gizonena baino ehuneko nabarmen altuagoa (% 19,8)².



EAEn **lanean ari diren emakumeen** erdia baino gehiago **osasunean, gizarte-zerbitzuetan, txikizkako merkataritzan, hezkuntzan eta ostalaritzan ari dira lanean.**²



% 57,2

Etxeko langileen Sistema Berezian lanean ari diren pertsonen **% 96,1** emakumeak dira.⁴



Langile bakoitzeko **soldata-arrakala** (urteko batez besteko irabazia) **% 19,5ekoa** (2019), da (2019), 2010koa baino kopuru handiagoa (% 23). Emakumeek 26.197,62€ jasotzen dituzte urtean batez beste, gizonak, aldiz, 32.529,17€.⁵



32.529,17€



26.197,62€

Zuzendaritza- edo gerentzia-postuak dituzten gizonezkoen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino, eta emakumeek **ordezkaritza handia** dute **administrazioko postuetan, zerbitzu pertsonaletan lan egiten duten pertsonen artean eta saltzaileen artean.**²

Zuzendaritza- edo gerentzia-postuak **/// % 3,2** **Emakumeak**
/// % 5,8 **Gizonak**

Kontulariak; administrariak eta bulegoko beste batzuk **//// % 15,0** **Emakumeak**
/// % 7,2 **Gizonak**

Ostalaritzako langileak, zerbitzu pertsonaletakoak, babes zerbitzuetakoak eta saltzaileak **//////// % 26,8** **Emakumeak**
//// % 12,8 **Gizonak**

Datuen iturria:

1. **EUSTAT**. Herritarren inkesta-jarduerarekin lotuta.

2. **EIN**. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

3. **EUSTAT**. Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren adierazleak.

4. **LANBIDEEN BEHATOKIA - ESTATUKO ENPLEGUAREN ZERBITZU PUBLIKOA (SEPE)**. Probintziako eta udalerrietako lan-merkatuaren urteko txostenak.

5. **EMAKUNDE**. EAEko soldata-arrakala.

PARTE-HARTZE SOZIPOLITIKOA


Mota desberdinetako botere publiko, erakunde eta alderdietako zuzendaritza-organoetan emakumerik ez egotea edo emakume gutxi izatea defizit demokratikoaren adierazlea da, eta hori gaingintu ahal izateko, erantzukizun publiko eta pribatuak modu bidezkoagoan banatu behar dira eta erabakiak hartzeko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatuagoa bermatu behar da.

Azken urteotan, erakunde publikoetako erabakiak hartzeko organoetan emakumeek duten presentziak aurrerapen handia izan du gure herrialdean. Zehazki, aipatu behar da berdintasunerako euskal legeak ezarri zuela Eusko Jaurlaritzarako eta Batzar Orokorretarako hauteskunderako hautagaien % 50 emakumeak izan behar zirela. Horrek jauzi kuantitatibo historikoa ekarri du emakume hautagai, hautatu eta parlamentarien ehunekoetan, eta, ondorioz, erkidegoan, lurralde historikoetan eta udalerrietan dauden organo legegile eta exekutibo gorenetan, emakumeek eta gizonek ordezkartza parekatuagoa dute.


Alabaina, erakunde publikoen lorpenak ez dira sektore ekonomiko pribatuan islatu, aurrerapausoak txikiagoak baitira arlo horretan.

Hori horrela, enpresa nagusietako administrazio kontseiluetan emakumeen eta gizonen ordezkartza parekideagoa lortzeko urratsak egiten jarraitzea da erronka nagusia. Alde horretatik, funtsezkoa izan da enpresetan Berdintasun Planak egin daitezen sustatzea eta hori indartzen jarraitu behar da.

EAEen, Genero Berdintasuneko Indizeko boterearen arloak du genero-arrakalarik handiena indizea osatzen duten guztien artean (62,7 puntu), baina bilakaera positiboa izan du azken urteotan (2010ean 54,3 puntuko balioa zuen).




	2010	2015	2019
BOTEREA	54,3	52,9	62,7




PARTE-HARTZE SOZOPOLITIKOA


2005eko Berdintasun Legea indarrean jarri zenetik, **Eusko Legebiltzarrean** emakumeek duten ordezkartza ehuneko 15,7 puntu igo da.²




Ejko goi karguetan dauden emakumeak



Emakumezko diputatuak




Euskadiko udalerrietako alkate emakumezkoak




Eusko Jaurlaritzako goi karguetan emakumeek duten presentzia 22 puntu goi da eta **aldundietako** zuzendaritza karguetan dutena 37 puntu azken 20 urteetan. Gainera, Euskadiko udalerrietako **alkateen** ehunekoa bikoiztu egin da aldi horretan.¹

EAEan egoitza duten finantza-erakundeetako administrazio kontseiluan dauden emakumeak



Euskadiko Patronalen Zuzendaritza Batzordean dauden emakumeak



EAEko sindikatu nagusien Batzorde Exekutiboan dauden emakumeak



Azken 10 urteotan, ia **bikoiztu** egin da EAEan egoitza duten **finantza-erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeek** duten ordezkartza. Halaber, igo egin da emakumeen parte-hartzea **sindikatu**etan (5 puntu) eta **Euskadiko patrona**letan (9 puntu 2015 eta 2019 artean), baina emakumeek erakunde horietan duten parte-hartzea murriztu da oraindik ere (% 18).¹

EAEan egoitza duten **IBEX 35eko enpresen Administrazio Kontseilu**etan emakumeek duten ordezkartza 21 puntu **igo** da 2010etik, nahiz eta **parte-hartzea geratu egin den azken bost urtean.**



Datuen iturria:

1. **EMAKUNDE.** 2020 zenbakiak - Euskadiko Emakumeak eta Gizonak.
2. **EUSKO JAURLARITZA.** Euskadiko Demokrazia Parekidea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA



Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanen desberdintasun historikoaren adierazpenik muturrekoena da. Garrantzitsua da presente izatea indarkeria hau ez dela eraso isolatuetan laburtzen, baizik eta pribilegioak eskaintzen dituen harremanak izateko modua dela, eta emakumeen menderakuntzari eusten laguntzen diola.

Emakumeen aurkako indarkeriak oraindik ere biktima asko eragiten ditu urtero EAEn. Bitarteko fisiko, psikologiko, eta ekonomikoak erabil daitezke (mehatxuak, larderiak eta bortxak barne) eta hainbat esparrutan ematen da (familian, lanean, hezkuntzan, osasunean, kirolean, komunikabideetan, aisialdirako eta festarako eremuetan, sarean, etab.). Askotariko formak hartzen ditu (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barrukoa, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, bortxa edo askatasuna ukatzea, tortura, jazarpena, etab.) eta ez dago biktimen profil zehatzik.

Urte askoan, indarkeria hau naturalizatua eta isildua egon da, bikote eta familia-harremanetako berezko osagaitzat hartzen zelako eta tartean zeuden pertsonen kontua soilik zela uste zelako.

Alabaina, egun nazioartean, estatuan eta erkidegoan dauden legezko erreferentzia nagusiek aitortzen dute emakumeen aurkako indarkeria egiturazkoa dela, hau da, gizarte patriarkalaren oinarrien gainean antolatu eta ezartzen dela, eta, beraz, pertsona zehatzek pairatzen duten arren, bere azalpenek eta ondorioek gizarte osoari eragiten diotela.



Ezin dugu ahaztu duela 25 urte eremu pribatuan kudeatzen zela emakumeen aurkako indarkeria. Hala, fenomenoaren benetako dimentsioa ezkutuan mantentzen zen. Aurrerapausoak eman diren arren, arazoaren tamaina kuantifikatzeak zaila izaten jarraitzen du gaur egun, indarkeriaren zati handi bat ezkutuan geratzen delako eta ez delako erakundeen erregistro ofizialetan ageri. Hala ere, jasotako datuen bilakaerak adierazten duenez, badirudi azken urteetan EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko hartu diren neurriei esker, gero eta emakume gehiagok eta horien inguruko pertsona gehiagok jotzen dutela erakundeetara edo bestelako elkarteetara laguntza bila.

Gainera, aintzat hartu behar da espazio berriak agertu direla eta horietan ere badagoela indarkeria, esaterako, espazio birtualetan. Sare sozialen erabilerekin eta teknologia digitalaren aurrerapenekin batera, areagotu egin da emakumeen eta nesken aurkako jazarpena eta abusu digitala. Emakume gazteak zaurgarriagoak dira eremu horretan, helduek baino gehiago erabiltzen dituztelako bitarteko horiek.

Azken urteotan arlo honetan urrats handiak egin diren arren, funtsezkoa da indarkeria honekin amaitzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren politikak eta berdintasun-politikak artikulatzearen eta atzeraelikatzearen aldeko apustua indartzea EAEn.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

Gero eta hobeto identifikatzen da emakumeen aurkako indarkeria zer den haren adierazpen ugarietan, eta emakume gehiagok jartzen dituzte kasuak profesionalen esku. Adibidez, **2020an, indarkeria matxista jasan zuten emakumeen 4.177 kasu** erregistratu zituen guztira Ertzaintzak, **duela hamarkada bat (3.507 kasu) baino % 19,1 gehiago.**




Datuok makroinkestaren prebalentziaren **aurreikuspenetatik urrun daude**; izan ere, inkesta horiek aurreikusten dute 16 urtetik gorako emakumeen % 21,5ek jasan duela indarkeria fisikoa noizbait bizitzan zehar eta % 13,7k sexu-indarkeria.²

Indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta eskaintzeko zerbitzu espezializatuak (SATEVI) **artatu zituen emakumeen % 55,1 seme-alabak ditu bere kargu** eta horiek ere indarkeria honen biktima dira.³





Ingurune digitalak espazio berriak ireki dizkio emakumeen aurkako indarkeriari.

Espainiako zibergaizkiletza kasuak bikoiztu egin dira azken urteotan, adingabeenak batez **788** ere.⁴



Euskal gizarteak indarkeria matxistaren inguruan duen kezka areagotu egin da azken urteotan. 2019an, herritarren 17,4k adierazi zuen indarkeria hori zela arazo sozial nagusietako bat, eta herrialdeko bosgarren arazoa izan zen.⁵



Covid-19aren pandemiaren ostean, indarkeria matxista ez dago dagoeneko lehenengo postu horietan.

Datuen iturria:

- EMAKUNDE.** EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren intzidentziari buruzko datuak- 2020ko datuak.
- BERDINTASUN MINISTERIOA. GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA.** Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2019. Madril: Berdintasun Ministerioaren argitalpen-zentroa, 2020.
- EMAKUNDE.** Emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzuna EAEn- 2020ko datuak.
- BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA.** Espainiako sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena.
- CIS. 3242_1600. ikerketa** 2019ko martxoko makrobarometroa. 2019ko Hauteskunde Orokorren Aurrekoa. Euskadi.

POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKERIA


Pobrezia eta gizarte-bazterkeria kontzeptuak bilakaera izan du pixkanaka eta, egun, finantza-elementuetatik harago doa eta alderdi materialekin, sozialekin eta kulturekin zerikusia duten beste batzuk ere barne hartzen ditu.

Emakumeek gizonen baino egiturazko baldintza okerragoak izateak zerikusia du zaintza eta etxeko lanak egiteko duten karga desberdinarekin, eta emakumeen lan-merkatuko egoera prekarioarekin. Honek nabarmen murrizten du emakumeen errenta sortzeko gaitasuna, eta gizarte-egitura desberdinetan parte hartzekoa.

Pobreziaren feminizazioaren kontzeptuak egoera horretan dauden emakumeen kopuru handiagoak adierazteaz gain, kontuan hartzen ditu pobrezia eta zaurgarritasun-egoera baldintzatzen duten bizi-ibilbidearen garrantzia eta generoaren baldintzak, baita emakumeengan eta gizonengan duen eragin desberdina ere.

Genero-rolek eta lanaren sexu-banaketak markatzen dituzte bi sexuetako pertsonen bizi-ibilbideak eta lan-merkatuan harremanak egiteko duten modua – baliabide ekonomiak lortzeko iturri nagusia baita–, bai eta gizarteko beste kide batzuekin duten elkar eragina ere: zer espero den batzuen eta besteen partetik edo nola heltzen diren baliabideetara.

Estatistika ofizialek adierazi dute pobrezia-arriskuaren tasa altuagoa dela emakumeen artean eta emakume bat buru duten familietan. Gainera, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonen erdia baino gehiago dira.




Prekarietatea edo pobrezia larriagotu egiten dira beste faktore batzuen ondorioz, hala nola adina, jatorri etnikoa edo desgaitasuna. Hala, bazterkeria-egoeren azterketa ikuspegi intersektzionaletik egin behar da, eta horretarako arreta jarri behar da pertsona batzuek aldi berean pairatzen dituzten hainbat diskriminaziorengan, aldiberekotasun horrek areagotzen baititu bazterkeria eta desberdintasuna.

Desabantaila-egoera horrek zaildu egiten baliabideetarako sarbidea izatea bizitza osoan zehar. Adineko emakume askok pentsio baxuekin biziraun behar dute, bizitzan eta ibilbide profesionalean zehar emakumeek dituzten desberdintasunen ondorioz.

Ongizate-sistemak berebiziko garrantzia du pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan, baina oraindik ere mugak daude berdintasunaren arloko erronkei heltzeko garaian, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi berrian ikusi den bezala, zeinak kasu askotan sendotu eta larriagotu egin baititu 2019a baino lehen zeuden pobrezia- edo gizarte-bazterkeria egoerak.

EAEko Genero Berdintasuneko Indizearen diruaren arloak aurrerapauso txikia izan du azken urteetan; 2019an, 85,4 puntukoa zen.


	2010	2015	2019
DIRUA	83,1	84,5	85,4





Pobrezia-arriskua

areagotu egin da azken urteetan, EAEko emakumeen artean, eta azken 12 urteetan % 6,1eko tasatik % 8,6ra igaro da. Gizonen kasuan ere igo da tasa, baina emakumeenaren azpitik egon da betiere.¹



% 8,0	BATAZ BESTEKO OROKORRA
GURASO BAKARREKO FAMILIA	% 18,6
JATORRI ATZERRITARRA DUEN PERTSONA BAT BURU DEN FAMILIA	% 41,9

Emakumeak buru dituzten, **guraso bakarreko familien** pobrezia-arriskuaren tasa batez besteko orokorraren **bikoitza** da.¹


Jatorri atzerritarra duen pertsona bat buru den familien pobrezia-arriskua batez besteko orokorra baino **bost aldiz handiagoa** da gutxi gorabehera.




Euskadiko emakumeen egungo **batez besteko errenta pertsonala** **2001ekoaren bikoitza** da (7.840€). Alabaina, gizonen errentaren oso azpitik dago oraindik ere.²



Diru-Sarrerak
Bermatzeko Errenta jasotzen duten hamar pertsonatik sei ia emakumeak dira (% 57,8).³



2018an gizonek jaso zuten **kotizaziopeko pentsioa** hilean 1.491,81 eurokoa izan zen, emakumeena aldiz 869,69 eurokoa, hau da, **gizonek jaso zutena baino 622 euro baxuagoa.**⁴



Datuen iturria:
1. **ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKA SAILA.** Txiritasunaren eta Gizarte Gaien Inkesta.
2. **EUSTAT.** Errenta Pertsonal eta Familiarraren estatistika. .
3. **LANBIDE.** 2021ean Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jaso duten pertsonak, lurralde historikoaren arabera.
4. **EMAKUNDE.** Genero-arrakala EAEko pentsioetan. 2020.


IV. Konferenziatik, EAEk emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko pauso garrantzitsuak eman ditu:

Hala ere, bide luzea dago oraindik egiteko:




KONTZILIAZIOA

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia qeskatu duten **gizonen** ehunekoak nabarmen egin du **gora** azken 15 urteetan.




ETXEKO LANA

Emakumeek egiten dituzte ordaindu gabeko etxeko lanen bi heren. Batez beste, emakumeek lan horretan gizonetako baino 1 ordu eta 11 minutu gehiago ematen dute.



LAN MERKATUAN PARTE HARTZEA



Emakumeen **jarduera-tasak** 10 puntu egin du gora azken 25 urteetan, eta gizonetakoekin tasarekin aldeak murriztu ditu zertxobait.

GENERO PAREKOTASUNA LANTOKIAN


Gizon eta emakumeen soldata-arraila altua da oraindik.

Batez beste, emakumeek gizonetakoekin baino urtean 6.300 euro gutxiago irabazten dute.



BALIABIDE EKONOMIKOAK

Egun, emakumeen **batez besteko errenta pertsonala** duela 20 urtekoaren **bikoitza** baino **gehiagokoa** da.



TXIROTASUNA

Emakumeek, egun, txirotasunean bizitzeko **gizonek baino probabilitate handiagoa dute**. Arriskua handitu egiten da guraso bakarreko etxebizitzaren buru direnean edo atzerriko jatorrikoak direnean.




HEZKUNTZA BEREIZKETA

Pixkanaka, emakumeek **gero eta presentzia handiagoa** lortu dute zientzia-teknologia espezialitateetan, radizioz “maskulinoztat” hartzen zirenetan.zertxobait.




POSTUEN AURKEZPENA

Unibertsitateetan, emakumeak **gutxiengoa dira oraindik ere Ikerlari Nagusien artean, baita tesia zuzentzen dutenen artean ere.**




ORDEZKARITZA POLITIKOA

Egungo Eusko Legebiltzarra parekidea da emakumeen eta gizonen arteko **osaerari dagokionez**. Gainera, Eusko Jaurlaritzako goi karguen artean, gizonen eta emakumeen presentziari dagokionez, oreka dago, baita Foru Aldundien zuzendaritza-karguetan ere.



ENPRESETAKO ERABAKITZE ORGANOETAKO ORDEZKARITZA



Oraindik ere, emakumeak **gutxiegi ordezkaturik daude sektore ekonomiko pribatuko erabakitze-organoetan.**

SENTSIBILIZAZIOA

Azken urteetan **nabarmen egin du gora indarkeria matxistaren kontra** gizarteak duen **sentsibilizazioak. machista.**

2019an, indarkeria hori dago euskal gizarte gehien kezkatzen duten bost arazoetako batean.


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

Emakumeen aurkako indarkeria matxista **giza eskubideen urraketa da oraindik ere** eta biktima kopuru handia eragiten du urtez urte.



BIZITZA ITXAROPENA

Euskadiko emakumeen **bizitza-itxaropenak gora egin du** pixkanaka azken 25 urteetan.



GAIXOTASUN KRONIKOAK

Urte gehiago **bizitzeak ez du hobeto bizitzea esan nahi.** Azken urteetan **gora egin dute emakumeen arazo kronikoak**, batez ere adinekoen artean.



